

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA BERRIKUNTZAREN SAILA

Foru agindua 7/2024, otsailaren 26koa. Innobideak - Kudeabide programarako laguntza deialdia 2024rako onartzea

Egunetik egunera, kudeaketa aurreratua garrantzitsuagoa da gure enpresentzat. Alde batetik, globalizazioaren ondorioak, lehiatzaileak emendatu direlarik eta merkatuen sofistrazioa geroz eta handiagoa bihurtu, eta, bestetik, digitalizazioa, teknologia fabrikazio prozesuetan bezala bezero eta hornitzaileen arteko harremanetan txertatu delarik eta, kasu batzuetan, negozio eredu berriak sorrarazirik, nahitaezkoa da aktiboen eta aukeren kudeaketa aurreratu bat, enpresaren balioaren proposamena etengabe bereizteko aukera emango duena.

Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek batera taxututako proiektua da Kudeabide programa. 2014an abiarazi zen, eta erakunde horiek partekatzen duten hausnartzeetan eta enpresei laguntzeko programen garapenean haiek izandako esperientzian du jatorria, xedetzat duelarik euskal enpresei laguntza koordinatua ematea leihakortasun abantailak sorrarazteko.

Innobideak-Kudeabide programak antolamenduaren eremu guztiak modu eraginkorrean kudeatzean oinarritzen du lehiakortasunari eman beharreko laguntza. Bide malgu eta enpresen beharrei egokitua eskaintzen du, erakundeetako digitalizazioaren garapenean lagunduz, eta trukean, zorrotasuna, konpromisoa eta emaitzak eskatzen ditu. Kudeaketa aurreratuaren eredu erreferentzia gisa erabiltzen da.

Programaren helburua da euskal enpresen lehiakortasuna hobetzea, kudeaketa aurreratuaren metodologiak, tresnak eta printzipioak aplikatu eta ezartzearen bidez, horretarako hasierako kontraste bat eginda Euskaliten laguntzarekin (1. etapa), jakiteko nola dabilzan kudeaketa aurreratuaren arloan. Euskalitek egindako txosten batean islatuko da hasierako kontrastea, eta txosten horretan proposamen bat jasoko da adieraziz enpresak zer daukan hobetzeko kudeaketa aurreratuaren arloan; baita gomendio sorta bat ere erakundeak ondoren kudeaketa hobetzeko beretzat egin beharreko ekintza plana taxutzeko (2. etapa). Enpresak ekintza planean sar ditzake bere benetako premietara egokitzen diren proiektuak, kontrastearen ondorioz egindako iradokizunetatik abiatuta. Plan horretan proiektu pilotuak (2A etapa) zein kudeaketa aurreratu finkatze proiektuak (2B etapa) sar daitezke.

Eusko Jaurlaritzak-SPRIk gidatzen du Innobideak-Kudeabide programa, eta Eusko Jaurlaritza-SPRIk eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiek koordinatzen dute. 2B etapan (kudeaketa aurreratu finkatze proiektuak) programa atalka kudeatuko da. Foru aldundiek, bakoitzak bere lurralde eremuan, programa honen esparruaren baitan 5 eta 50 baino gutxiago arteko enplegua dituzten enpresek egindako jarduerak kudeatuko dituzte, eta Eusko Jaurlaritzak-SPRIk, berriz, behintzat 50 enplegu dituzten enpresek egindakoak. Gainera, programa hau egiteko, lehenago aipatu bezala, Euskalitek laguntza ematen du, hasierako kontrastea egiteko etapan eta kudeaketa aurreratu proiektu pilotuak abiarazteko etapan parte hartzen duten enpresa guztien euskarria izango da eta, Know-Inn metodologia haien eskura jarritz.

Laguntza deialdi honek arautzen du 5 enplegu eta 50 enplegu baino gutxiagoko artean dauzkaten eta Innobideak-Kudeabide programako kudeaketa aurreratu finkatze proiektuen etapan (2B etapa) parte hartzeko interesatuta dauden Arabako enpresen laguntza.

Deialdi hau lehia askeko prozeduraren bidez arautuko da, eta, beraz, eskaerak heltze ordenaren arabera ebatziko dira, eskabidea osatu ondoren, aurrekontua agortzen den arte.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Innobideak-Kudeabide programarako laguntzen 2024ko deialdi publikoa, zeina foru agindu honi erantsita dagoen.

Bigarrena. Honako hauek arautuko dute deialdi hau: norgehiagoka bidez ematen diren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriek, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuak onetsi baititu, eta foru agindu honen eranskinean ezarritakoak.

Hirugarrena. Foru agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldirako luzatutako 2023ko aurrekontuaren gastuen aurrekontuko 15101. G/433152/77000160 partidaren kontura ordainduko dira, 100.000,00 eurokoa 2024ko ekitaldirako eta 50.000,00 eurokoa 2025eko konpromiso-krediturako.

Deialdiak eragin egokia izan dezan, zenbateko gehigarri bat ezarri da, hain zuzen ere, gehieneko zenbatekoaren ehuneko 30, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzarenak, 21.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Laugarrena. Ebazpen honen bidez administrazio bidea amaituko da. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikularekin bat etorritz, aukerako berraztertzeo errekurtsioa aurkez dakioke Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Saileko foru diputatuari, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahalko da administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eraginak izango ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Saileko foru diputatua

SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria

ANDER LARRINAGA SAIZ

ERANSKINA

INNOBIDEAK-KUDEABIDE LAGUNTZEN 2024KO DEIALDIA, ARABAN
KUDEAKETA AURRERATUKO PROIEKTUAK GARATZEKO**1. artikulua.- Xedea**

Deialdi honen xedea da kudeaketa hobetzeko proiektuak laguntzea, kudeaketa aurreratuaren ereduarekin bat datozenak eta Arabako enpresen lehiakortasuna hobetzen dutenak.

2. artikulua.- Aurrekontu partidak eta gehieneko guztizko zenbatekoa

2.1. Foru agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldirako luzatutako 2023ko aurrekontuaren gastuen aurrekontuko 15101. G/433152/77000160 partidaren kontura ordainduko dira, 100.000,00 eurokoa 2024ko ekitaldirako eta 50.000,00 eurokoa 2025eko konpromiso-krediturako.

2.2. Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorren 7.2. artikulua betez, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaritzak hala proposatuta. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

Deialdiak eragin egokia izan dezan, zenbateko gehigarri bat ezarri da, hain zuzen ere, gehieneko zenbatekoaren ehuneko 30, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko dirulaguntzarenak, 21.2 xedatutakoarekin bat etorritz.

3. artikulua.- Onuradunak

3.1. Agindu honetan jasotako onurez gozatu ahal izango dute plantillan 5 eta 50 baino gutxiago arteko langile dituzten Arabako enpresek; hain justu, Euskalitek egindako hasierako kontrasteko txostena indarrean daukaten eta kudeaketa aurreratuko ekintza plan zehaztu bat -kudeaketako finkatze proiekturen bat jaso beharko da kontraste horretan identifikaturiko hobekuntza arloekin bat etorritz- aurkezten duten enpresek.

Agindu honen ondorioetarako, kudeaketa aurreratuaren hasierako kontrastearen txostena hau da: Euskalitek egindako txostena, azaltzen duena zein den enpresaren posizionamendua kudeaketa aurreratuari dagokionez, erreferentziatza harturik definitutako eredu berria. Kontraste txosten horrek horrez gain zehazten du enpresak erabaki dezakeela zein arlo hobetu lehentasunez kudeaketa hobetzeko ekintza planerako. Egiaztatze txostenak bi deialdirako balioa du jaulkitzen denetik hasita, eta web orri honen bidez eskatu behar da www.kudeabide.com.

3.2. Erakunde onuradunek betekizun hauek bete behar dituzte:

– Berezko nortasun juridikoa izatea.

– Jarraian aipatzen diren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigraferen batean jarduera ekonomikoak egitea: Lehenengo ataleko (enpresa jarduerak) 1, 2, 3, 4, 5 (504 taldekoak soilik), 6 (62 eta 69 taldeetakoak), 7, 8 (84 taldekoak soilik) eta 9 dibisioei dagozkienak. Betekizun hori egiaztatzeko, enpresaren jarduera nagusiek JEZean (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga) duten epigrafea hartuko da kontuan.

– Sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Araban edukitzea edo lurraldean gutxienez ekoizpen edo zerbitzu zentro bat edukitzea.

– Urteko kopuru baliokideetan, lanaldi osoko 5 eta 50 baino gutxiago arteko langile izatea plantillan. Plantillako langileak izango dira enpresaren jarduerari lotutako langile autonomoak, beraien izaeragatik ezin dutenak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean alta emanda egon.

– Egunean izatea Euskalitek egindako kudeaketa aurreratuko hasierako kontraste txostena, non gomendio gisa jasoko baita kudeaketa aurreratuko finkatze proiektu bat egitea identifikatu diren hobetu beharreko arloetako batean edo batzuetan.

- Programaren helburuetara egokitzen den 2B finkatze proiektu bat aurkeztea.
- Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea bai emateko ebazpenaren aurretik bai dirulaguntza jasotzeko unean. Enpresak Gizarte Segurantzako inolako araubidetan kotizazio kontuaren koderik esleituta ez badu, enpresako bazkide guztiak Gizarte Segurantzarekin egunean egon beharko dira.

3.3. Ezin dute onuradun izan erakunde administrazioarenak diren eta berezko nortasun juridikoa duten sozietate publiko eta erakundeak, ekonomia intereseko taldeak (EIT), ondasun erkidegoak, sozietate zibilak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileak, horretarako kreditatuak, eta enpresa eta berrikuntza zentroak.

4. artikulua.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak

4.1. Diruz lagundu ahalko dira kudeaketa aurreratuko hasierako kontraste txostenarekin bat datozen eta erakunde eskatzailearen kudeaketa aurreratuko ekintza planean jasotzen diren finkatze proiektuak (2B proiektuak).

Diruz lagundu daitezkeen finkatze proiektuak (2B) eremu hauetakoren bat hobetzera zuzenduta egongo dira:

- Estrategia. Proiektuen asmoa izango da behar den informazio estrategikoa izatea eta partaidetzako gogoeta prozesuak egitea, zeinei esker estrategia jakin bat ezarriko den. Gero, estrategia hori behar bezala zabaldu eta jakinaraziko da, eta haren zerbitzura kudeatuko dira ekonomia eta finantza baliabideak, teknologia eta informazioa.

- Bezeroak. Proiektuek bezeroekiko harremanak eta balio kateko elementu guztien eraginkortasuna sustatuko dituzte, produktuak eta zerbitzuak garatzeko eta merkaturatzeko lanetatik hasi eta ekoizpen, banaketa eta mantentze lanetaraino. Horretarako, enpresa estrategian zeresan handia izan dezaketen hornitzaileen eta azpi kontratisten laguntza izango da.

- Pertsonak. Proiektuen asmoa izango da hautaketa prozesuak eta ordainsariak hobetzea, eta ezagutzak, gaitasunak eta lidergorako ahalmena garatzea, betiere enpresa strategiara egokituta.

- Gizartea. Proiektuak elkartearen gizarte lana egitera bideratuko dira, haren gaitasunak kontuan hartuta; halaber, ingurumen iraunkortasunaren aldeko neurriak bultzatuko dira.

- Berrikuntza. Proiektuek berrikuntzako estrategia eta helburuak definituko dituzte, eta barne testuinguru jakin bat sortuko dute, hain justu, pertsonen arriskuak hartzea, ekimen berriak garatzea eta berrikuntzak sartzeko bultzatuko duena. Berrikuntzako ideiak eta proiektuak eraginkortasunez kudeatuko dira.

- Emaitzak. Proiektuok emaitza estrategikoak neurtu, ebaluatu eta kontrolatzeko mekanismoak sortuko dituzte, bezeroei, pertsonen, gizartearen eta berrikuntzari dagokienez.

Proiektu hauek ez dira diruz laguntzeko jarduerak izango:

- Arabako Lurralde Historikoko zentzoren batean aplikatu ezin diren proiektuak.
- Hutsune argiak dituzten proiektuak, dela beraien definizioan (zehaztasuna, plangintza, gauzatze metodologia...) dela proiektuari esleitutako baliabideetan (baliabide teknikoak, lantaldeak, zuzkidura ekonomikoa...).
- Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzaren beste plan, programa edo jardun arloetan sartuta egon daitezkeen jarduerak, eta zuzendaritza horren eskumenekin koherenteak ez direnak.

4.2. Diruz lagundu ahalko dira kanpoko enpresak edo profesional autonomoak kontratatuzko egindako gastuak, kudeaketa hobetzeko aurkeztutako proiektuaren aholkularitza jarduerak egiteko erabili badira.

Enpresa kontratzailearen eta kontratatuaren artean ez da inoiz loturarik egongo.

Diruz lagundu ahal diren gastuei dagokienez, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

– Diruz laguntzeko gastuek zuzeneko harremana izan behar dute kudeaketa aurreratuaren finkatze proiektua (2B proiektuak) definitzeko eta garatzeko lanekin, zeinek betiere Kudeabide programan eta Euskalitek idatzitako enpresaren hasierako kontrastearen txostenean definitutako gaietakoren bat edo batzuk landuko dituzten.

– Deskontuek eta antzekoek, fakturan sartuta egon zein ez, gastuaren balioa gutxitzea ekarriko dute.

– Diruz laguntzeko gastuek behar besteko ekarpena egin beharko diete deialdiaren xedeei, eta Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak gastu horiek mugatu ahal izango ditu.

Honako gastu hauek ez dira diruz lagunduko:

- Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ).
- Kanpoko enpresako langileen joan-etorrien gastuak.
- Materialak prestatzeko gastuak.
- Aretoen alokairua.
- Dietak eta antzekoak.
- Enpresa eskatzailearen barruko langile gastuak.

4.3. Erakunde bakoitzak eskaera bakar bat aurkez dezake.

5. artikulua.- Aplikazio eremua eta proiektuak gauzatzeko epea

5.1. Erakunde onuradunek Arabako Lurralde Historikoan kokatu beharko dituzte diruz lagunduko diren azterlan edo proiektuen ondorioak.

5.2. Dirulaguntza jasoko duten jardunak laguntza eskaera aurkeztu ondoren eta 2024ko abenduaren 31 baino lehen hasiko dira. Amaitu, aldiz, laguntza eskaeran proiektua hasteko zehaztu den egunetik hamabi hilabete igaro baino lehen amaituko dira, betiere 2025eko urriaren 1a baino lehen.

6. artikulua.- Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Agindu honetan jasotako dirulaguntzak ez dira itzulgarriak.

6.2. Laguntzaren zenbatekoak diruz lagundu daitekeen aurrekontuko gastuen ehuneko 60 egingo du, enpresako 7.200,00 euroko muga izanik.

6.3. Proiektua dirulaguntza jasotzeko modukoa izateko, dirulaguntzaren gutxienezko zenbatekoa 1.500,00 euroan ezartzen da.

7. artikulua.- Jardunbidea bideratzeko eskumena duten organoak

7.1. Prozedura Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak bideratuko du.

7.2. Instrukzio organoak ebazpen proposamena igorriko dio Garapen Ekonomikoaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzari.

8. artikulua.- Eskaerak aurkezteko epea eta modua

8.1. Eskaerak aurkezteko epea laguntza deialdi hau indarrean sartzearekin bat hasiko da eta 2024ko irailaren 27an, 14.00etan, amaituko da.

8.2. Eskaerak baliabide elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa <https://egoitza.araba.eus/eu/hasiera>; horretarako, lehenago eskatzaileek ziurtagiri elektronikoa izan beharko dute. Egoitza elektronikora sartzeko bide desberdinak eta erakunde ziurtatzaile batek luzatutako ziurtagiri elektronikoa eskatzeko nora jo argitzeko informazioa <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu> atalean aurkitzen da.

Arabako Foru Aldundiaren webgune instituzionalean <https://egoitza.araba.eus/eu/-/solicitar-ayudas-kudeabide> eskuragarri dagoen informazioan, eskaera ongi aurkezteko jarraitu beharreko argibideak zehazten dira.

8.3. Eskabidearekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira, formatu elektronikoan. Agiri horiek ez dira sinatu behar eskuz, eskabidea aurkezteko unean eskatzen den sinadura elektronikoa eramango baitu.

- Foru Ogasunak igorritako Jarduera Ekonomikoen Ziurtagiri Historikoa.
- Enpresa edo erakundearen memoria laburra.
- Euskalitek egindako eta indarrean dagoen kudeaketa aurreratuaren hasierako kontrastearen txostenaren kopia.

– Enpresak prestatutako ekintza plana. Bertan, kudeaketa hobetze aldera egin nahi diren ekintza guztiak bilduko dira, kudeaketa aurreratuaren hasierako kontrastearen txostenak adierazitako ondorioekin bat etorritik.

– Eskaintza tekniko eta ekonomikoaren kopia, non honako hauek zehaztuko diren: finkatze proiektuaren izena (2B), lanen edukiak, epeak, aurrekontu zehaztuak eta lana egingo duten aholkularien izenak.

– Eskatutako 3 eskaintzen fotokopiak, diruz lagundu beharreko jarduketaren aurrekontua 15.000,00 euro edo gehiagokoa bada. Horrekin batera, hautatu den eskaintza ez bada eskaintzarik merkeena, aukeratu izanaren arrazoia.

– Eskabidea aurkeztu aurreko hamabi hilabeteetan alta emanda zeuden batez besteko langileen kopurua (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako ziurtagiria).

8.4. Erakunde eskatzaileak baliozkotasuna emango die Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzako laguntza eskabide eredian identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiei.

8.5. Dirulaguntza eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak zuzenean eskuratu ahal izateko 3. artikuluan adierazten diren inguruabarren egiaztagiriak, eta bereziki Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko egoerari buruzkoak. Nolanahi ere, sozietate egoitza edo zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan ez daukaten erakundeek beraiek aurkeztu beharko dute Ogasunarekiko egoerari buruzko ziurtagiria.

9. artikulua.- Emakidaren prozedura

9.1. Dirulaguntza emateko prozedura lehia irekia izango da, harik eta eskuratzeko dagoen aurrekontua agortu arte.

9.2. Eskaerak heldu ahala ebatziko dira, betiere deialdiaren betekizunak betetzen badituzte, harik eta bertan esleitutako aurrekontua agortzen den arte.

9.3. Eskaera jaso den eguna izango da deialdiko betekizunak betetzen direla eta espedientea osorik dagoela egiaztatzen duen dokumentazioaren azken eguna.

9.4. Dirulaguntzak emateko prozedurari ofizioz emango zaio hasiera, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

10. artikulua.- Dirulaguntzen deialdia ebaztea, jakinaraztea eta dirulaguntza aurreratzea

10.1. Organo eskudunak, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaritzaren proposamenez, dagozkion ebazpenak emango ditu. Ebazpen horiek bide elektroniko bidez jakinaraziko dira, eta hala ezin bada, gutun ziurtatu bidez, bat etorritik urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoarekin.

10.2. Jakinarazitako ebazpen horrek bide administratiboa agortzen du, baina aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Saileko foru diputatuari Agindua jakinarazi ondorengo egunean hasi eta hilabete igaro baino lehen, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikulua xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako dagokion jurisdikzioaren aurrean, ebazpena jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

10.3. Behin esleipen ebazpena jaulkirik, eta entitate onuraduna ordezkatzuz jarduteko gaitasuna duen pertsonak behar bezala sinatutako idazki bat aurkezturik, esleitutako dirulaguntza onartzen duela jasotzen duena, aurrerakin bat emango zaio, justifikatu beharrekoa, esleitutako dirulaguntzaren bi heren artekoa. Idazki horiek dirulaguntza ematearen jakinarazpena jaso ondorengo hamar egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira egoitza elektronikoa.

10.4. Justifikatu beharreko aurrerakin moduan egingo da dirulaguntzaren ordainketa, eta ez da ezarriko emandako funtsen berme araubiderik.

11. artikulua.- Dirulaguntza justifikatzea eta bigarren zatia ordaintzea

11.1. Onartutako dirulaguntzak ebazpenean nahiz ondorengo puntuetan xedatutako betekizuna eta baldintza guztiak bete ondoren likidatuko dira.

11.2. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren bigarren zatia ordain dezan, eta lehenbiziko ordainketa frogatutzat jo dezan, onuradunak ondoko agiri hauek egoitza elektronikoa aurkeztu beharko ditu 2025eko urriaren 24a baino lehen (egun hori barne):

- Egindako jarduera guztien amaierako memoria.
- Diruz lagundutako proiektuko gastuen eta diru sarreraren taula edota finantzaketa taula.
- Ordainagiriak eta gainerako frogagiri baliokideak. Beste herrialde batzuetako erakundeek egindako fakturak itzulita egongo dira, ingelesez egindakoak izan ezik.
- Eskaintza hirukoitza eta arrazoitzeko txostena hautatutako eskaintza ekonomikoki onena ez bada (izandako benetako kanpoko gastua 15.000,00 euroko mugaraino iritsi edo hura gainditzen bada eta eskabidean jaso ez balitz).
- Gastuak justifikatzeko banku transferentziak edo merkataritzako trafiko juridikoa frogatzen duen balio bera duten bestelako dokumentuak; horietan agertu beharko dira ordaintzailea, onuraduna, zenbatekoa, ordainketaren eguna eta kontzeptua.
- Erantzukizunpeko adierazpena, Arabako Foru Aldundiaren webgunean <https://egoitza.araba.eus/eu/-/kudeabide-justificacion> agertzen den ereduaren arabera, eta adierazi beharko da erantsitako fitxategiak jatorrizkoen benetako irudiak direla, jatorrizko dokumentuak eskaera egin duen erakundearen esku daudela eta Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko direla, hark hala eskatuz gero.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, Arabako Foru Aldundiak dagokion zenbatekoa ordainduko du eta, hala badagokio, justifikatutzat joko du aurrerakinaren xede izan zen zenbatekoa,

Kanpoko profesionalen egindako fakturen kasuan, erakunde onuradunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, justifikatu beharreko ordainketa egin beharra onartuko da eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta bidezko justifikazio txostena egitea, Arabatik kanpoko zerga helbideratzea duten kanpoko profesionalen egindako fakturen kasuan izan ezik. Baldin eta, dirulaguntza ordaindu eta gero, egiaztatzen bada ez direla sartu egin beharreko atxikipenak, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

11.3. Ordainketak arintzeko, unean unerako jarritako epe mugak baino lehenago aurkeztu ahal izango dira eskatutako agiriak.

11.4. Aipatutako epeak igarota, lehenengo aurrerakina ordaintzeko zein bigarren zatia ordaintzeko eta lehenbiziko ordainketa frogatutzat jotzeko aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ez badira, edo aurkeztutako agiriak guztiak ez badira, dirulaguntza zio horregatik murriztu edo baliogabe utziko da, dagokionaren arabera. Salbuespenez, ordaintzeko betebeharra onartzeko agiriak epeaz kanpo onartu ahal izango dira baldin mugaegunetik aurrera hamar egun naturaleko epean aurkezten badira, eta azkenean justifikatutako zenbatekoaren ehuneko 20ko murrizketa ezarriko da dirulaguntzan.

11.5. Ordainagiriak onartutako gastu osoaren zenbatekora iristen ez badira, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan berregokituko da, eta dagokion kopurua baliogabe utziko da.

11.6. Dirulaguntza jaso duten jardueri eragiten dien gorabehera edo aldaketa oro jakinaraziko zaio Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari, eta behar diren erabakiak hartu eta erakunde onuradunari jakinaraziko dizkio berak. Hortaz, onartutako gastu osoaren mugarekin, aldaketak onartu ahalko dira hasieran dirulaguntza jasotako jardueretan eta haiei dagozkien zenbatekoetan, haietakoren bat gauzatu ez balitz ere.

Aldaketa horiek Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute. Aldaketak funtsezkoak badira, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak onartu beharko ditu.

11.7. Erakunde onuradunek gastuen agiriak aurkeztu ondoren, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak in situ egin ahalko ditu bisitak dirulaguntza jaso duten jarduerak egiaztatzeko.

12. artikulua.- Dirulaguntzen bateraezintasuna

Laguntza hauek bateraezinak izango dira beste edozein laguntzarekin.

13. artikulua.- Garapena

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio agindu hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro hartzeko.

14. artikulua.- Publizitatea eta komunikazioa

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduerak zabaltzeko ekintzarik eginez gero, Arabako Foru Aldundiak emandako finantzaketa aipatu beharko du zabalkunderako baliatutako bitarteko eta materialetan; horrela, bada, erakunde honek irudi korporatiboa dela-eta ezarritako oharretara egokituko dira.

15. artikulua.- Araubide juridikoa

Deialdi honetan ezarritako prozedura Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 10ko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorretan ezarritakoaren mendean dago, hauetan xedatutakoaren aurka ez badago: Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arau berria; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege dekretua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudia onartzen duena, nahiz dirulaguntzei buruzko ondorengo gainerako xedapenak.